

@@@EDIKTUA, 2011ko ekainaren 20koa, Laneko zuzendariarena, 11.0138.48.01.01.02
espedientean emandako ebazpena XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX enpresari jakinarazteko
dena.@@@

Nik, Katrin Begoña Iturrate Zamarridak, Laneko zuzendaria naizenak, hau jakinarazten dut:

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX enpresari –I482010000095145 arau-hauste akta dela-eta–
irekitako 11.0138.48.01.01.02 espedientea amaituta, ebazpena eman da, batetik, arau-
haustearen eraginez hasarazitako jarduketak iraungi direla deklaratzeko, eta, bestetik,
espedientearen artxibaketa agintzeko (...). Ez zaio zehapenik ezartzen.

Ahaleginak egin diren arren, ezin izan zaio ebazpena jakinarazi
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX enpresari, azkenengoz eman duen helbidean (XXXXXX
XXXXXX kalea, 11, 1, 48014 XXXX). Beraz, jakinarazpena egiten zaio, Herri
Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren
26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan agindutako moduan. Ohartarazten zaio, halaber,
ebazpen horrek ez diola amaiera ematen administrazio-bideari eta, beraren aurka, gora
jotzeko errekurtoa aurkez diezaiokeela –tokian tokiko lurralde-ordezkaritzaren bitartez–
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Laneko sailburuordeari, ebazpena jakinarazi eta
biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, hala xedatzen baita 30/1992 Legearen 114.
artikuluan eta hurrengoetan.

Enpresarentzat jakinarazpen-ondorioak izan ditzan argitaratzen da ediktu hau, Herri
Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren
26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan xedatutako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 20a.

Laneko zuzendaria,
KATRIN BEGOÑA ITURRATE ZAMARRIPAK.